

## HITZAURREA

“Ez dago eskubiderik...!”

Atzo gure herritik hiriburura joan behar izan nuen, zenbait eginbehar betetze-  
ra.

Aurretik gure herriko Institutura deitu nuen:

– Egunon! Gure alabak Unibertsitatean matrikulatu nahi du; horko agiriak be-  
harko lituzke.

– ¿Cómo dice? No le entiendo nada.

Alabarekin abiatu nintzen hirira; bidean ertzainak geldierazi:

– Zer da? nik galdetu.

– ¿Es que no ha visto Ud. la señal de velocidad limitada?

– Euskaraz, mesedez!

– Soy yo quien está preguntando; no me va a mandar Ud. en qué lengua tengo  
que hablar.

Semaforoan geldi. Udaltzainari deitu diot.

– Aizu, Unibertsitaterako bidea, mesedez!

– Si no me habla en castellano, no podré ayudarle.

Fakultateko idazkaritzan, bost lagun, idazkaritzakoak. Nire alabak:

– Zer egin behar dut matrikulatzeko?

– Perdona, pero hoy no está la que podría atenderte en euskera. Dime, por  
favor!

– Matrikula...!

– Ah, sí; tienes que rellenar este impreso.

– Baina euskaraz nahi ditut nik eskolak hartu; quiero los cursos en euskara.

– No, en esta Facultad sólo se da una materia en euskara.

Udaletxera abiatu. Han atezainari galdetu:

– Ikasleentzako...

– Vaya a la recepción, que allí le atenderán.

– Egunon! Norekin hitz egin behar dut udaletxean ikasleentzako etxebizitzet-  
buruz?

– Bai... nik... ulertzen...; baina... le voy a responder en castellano, va a ser  
mejor. No existe un servicio para eso en el ayuntamiento. Tendrán que preguntar  
en la misma Universidad.

Bidaia aprobetxetuz, pasaportea berritzera joan nintzen.

– Euskaraz egin al daiteke hemen? Inuxente honek hango poliziarri.

– Aquí se habla sólo español. Pregunte en la taquilla.

Hori dena atzo bertan. Eskubiderik al dago horretarako?”

Ez dago horretarako eskubiderik... Baina zuk baduzu eskubidea!

Badituzu eskubideak Euskara zure hizkuntzari buruz, zeure eskubideak: horietako asko legetan ez daudenak; batzuk legeztatuak, legez ezagutu eta babestuak; beste batzuk oraingo legetan aitortugabeak edota ukatuak. Denak zeure eskubideak dituzu. Eskubideak ezagutu, bete eta beterazi egin behar, ordea.

Legeek egiten omen dute legelarien zuzenbidea; eskubideak aitortzen eta babesten dituen neurrian zuzenbidez baliatzea dagokigu. Baina zuzenbide hori ez da sarritan gizabide zuzena, giza eta herri-eskubideen aurkako denean; eta orduan erresistentziazko jarrera eta borroka dagokigu, zuzenbide horren kontra, ezarritako legeak aldarazteko. Areago, une bakoitzeko legezko zuzenbideak ez ditu inoiz eskubideak agortzen; horregatik legetan ez dauden gure eskubideak ere ezagutu, bete eta beterazi behar ditugu, eta horretarako eragozpenak badaude, eskubideok legezko aitortpena eta babesa eduki dezaten ahalegindu.

Euskararen legezko zuzenbidearen eta berezko eskubideen (euskaldunon eskubideen) arteko dialektika -eta gatazka- horren barruan kokatzen da liburuska hau; eta hortxe jarri nahi du honetaz baliatuko den bakoitza.

Gaurko Euskararen zuzenbide-eskubideen arteko desoreka gainditzeko eta normalkuntza juridikora iritsi ahal izateko borrokaren eragiletzat hiru abiaburu funtsezko hauek ipintzen ditugu liburuska honen hasieran:

- 1.- Euskal Herri osoaren hizkuntza nazionala da Euskara.
- 2.- Euskal herritar guztiona eta guztiontzat da Euskara.
- 3.- Euskararen berreskurapen osoa da normalkuntzaren helburua.

LAGUNTZA duzu liburu hau. Euskal Herriko lege-arauetan aitorturiko eta babesturiko Euskarari buruzko zure eskubideak ezagutzeko eta horietaz beti balia ahal izateko gidaliburua. Zure bizitzako hainbat egoeratan euskara erabiltzeko eta erabili erazteko duzun eskubidearen berri emango dizu; eta zure eskubidea zapalduta gertatzen denean zer egin dezakezun adieraziko dizu.

SALAKETA duzu liburu hau: a) Euskara normaltzeko gaurko egoera juridikoren hutsuneak eta eskasiak nabarmentzen ditu. b) Hemen agertzen diren eskubide guztiak pertsonalak dira, euskararen lurraldetasun-printzipioa eta euskararekiko eskubide kolektiboak ukatuta daudelako. c) Euskal Herriaren bere hizkuntza nazionalarekiko zatiketa juridiko-administratiboa agerian jartzen du, euskaldunon arteko desberdintzapen nabarmenarekin batera, geure hizkuntzarekiko eskubideei dagokionez.

ASTINDUA dugu liburu hau euskaldun guztiok. Geure hizkuntz eskubideak ukatuta edo zapalduta ikusten ditugunean, uzkurtuta gelditu ohi gara sarritan, edota buruhausteetatik ihes egitearren, “ez dago eskubiderik” esate hutsean utzi ohi dugu arazoa. Geure eskubideak zaintzen eta defenditzen jakin behar dugu egunero, ordea.

ZIRIKADA dugu liburu hau. Euskara euskaldun guztiok geurea dugulako, horren defentsa eta normalkuntza guztion erantzukizuna dugu, eta ez “militantearena” bakarrik. Izatez geure hizkuntzaren eta horrekiko geure eskubideen aldeko militante bihurtu nahi gaitu guztiok liburu honek.

Funtsean dinamika sozial berria bultzatu nahi du liburuak: geure hizkuntzari buruz ukaturik dauzkagun eskubideez jabetuz, eta aitorturik dauzkagunetan oinarrituz eta horietaz osorik baliatuz, legeak aldatuz eta osotuz joateko eta geure hizkuntz eskubide guztiak “eskuratzeraz” heltzeko. Dinamika horretxek berehala gaindituta utzi behar du liburu hau, euskararen legeen aldeko eta horien kontrako -edo horien harantzako- borroka legala eta alegala -sarritan ilegala-: dena batean eraman nahi duelako. Kontradikzio horixe bereganatuz, euskal gizarte osora zabaldu nahi du.

Baina erne! Zeure eskubide aitortu eta legeztatuak defenditu nahi izaterakoan, sarritan horiek babesteko dauden erakunde ofizialetan eta horien ordezkariengan aurkituko dituzu kontradikziorik handienak, zeure errekurtsio legezkoenak oztopatu, saihestu edota geldierazi nahi dituztenean. Halako horma instituzionalen batekin topo egin dezakezu behin baino gehiagotan.

Orduan gure eskubideen aldeko borroka, horiek oztopatu edo ukatu egitendituztenen kontrako borroka bihurtzen da. Orduan batez ere eskubidezkoak ditugun baliabide guztiak erabili beharko ditugu: legezko helegiteak edo errekurtsioak, jendaurreko salaketak, protestak, manifestaldiak.... Beti ere jakinez euskararen aldeko ahalegina ez dela indibiduala bakarrik, euskal gizarte eta herri osoarena baizik. Hemen ere koordinazioa eta batasuna funts-funtsezkoak dira.

EKBk aspalditiko helburua izan du Euskararen defentsarako eta normalkuntzarako Zerbitzu Juridikoa sortzea, herritar guztiei irekia legokeena. Liburu

honek lagungarri izan nahi du edonoren akzio legalak bideratzeko eta indartzeko eta guztionak koordinatzeko. EKBren Zerbitzu Juridikoa horretarakoxe dago.

Jakina, Euskararen aldeko eta Euskarari buruzko herritarren eskubideen defentsako ekintza legala agintarien eta erakunde ofizialen betebeharra da funts-funtsean. Aipaturiko Zerbitzu Juridikoa herritar guztiei zor zaien zerbait da. Komunitate Autonomoak badu Arartekoa, baina Nafarroak eta Iparraldeak ez; euskararen aldeko ekintza legalean oso kontutan edukitzekoa da Arartekoaren eginkizuna. Baina horrengana jo aurretik ere herritar gehienok dugu aholkularitza eta zerbitzu juridikoaren premia. Euskara herritar guztion ondasuna eta eskubidea denez, erakunde publiko eta ofizialen eta herritarren arteko lankidetzeta eta elkarrekiko eragin etengabea nahitaezkoak dira horren defentsa legalari dagozkionean ere, bi aldetakoen harreman dialektikoaren barruan beti.

E K B

1990eko apirilean.